

...eta! Kitto!

2017-XII-4

1037 zkia.



Lagatzekotan
egotetik
profesionaletan
jokatzera



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ZERBITZUA / KUDEAKETA - ADMINISTRAZIOA

30 urte baino gehiagoko esperientzia

943 200 358

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

ARRETA PERTSONALA ETA TELEFONOZ 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etatik 19:30etara

+ osasun gida

Dentistak

arat
Hortz Klinika

943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com

Toribio Etxebarria, 4 - 1ºesk

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

bista eder
clinica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

EIBAR ♦ HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tf. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

Ginekologia

Mª Jose Ruiz de Porres
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. esk. 943 20 28 57
94 444 95 34

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk. 943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluizio atipikoa
Disfonia
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak
Berba arazoak
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Cyndi Birberg

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Minduta –

Albiste mingarria irakorri dot, komunikabide askotan neurritz gora emonda gaiñera. Eibar, gure herri eredugarria, herri zatarreren artian bosgarren. Zergaitik? Baten bati okurridu jakolako? Entzun dabela? Jakin nahiko neuke ikerketa "zientifiko" hori zertan oinarritu ete dan gure herrixa kategorixa horretan sartzeko. Eibar zementu, aldapa, eskillara mekaniko eta "zulua" baiño askoz gehixago da. Guk ez dakugu ez "marko paregaberik" (horrekin be ezin ados egon) ez Guggenheim-ik, baiña Eibarrek eta eibartarrok beste balore batzuk be emoten detsagu herrixa

ikus, sentidu eta ezagutu nahi dabenari, gastronomixia, adiskidetasuna eta elkartasuna, beste batzuen artian. Hórrek balixo horrek ez ete dira nahikuak herri baten zatartasuna edo edertasunaren inguruko barloziño errealaigua egitterako orduan? Ranking hori egin dabenak ziur nago ez dabela gure herrixa ezagutzen. Hórreri eta berdin pentsatzen dabeneri esango netsen ez jakula inporta, horren gaiñetik dagola eibartarron izaeria, eta sekula ez dogula Eibar Hiri Eredugarriko herritarrak izatiari uko egingo.

Jose Aranberri

– Kontsumoa eta euskara –

Black Friday, Blue Monday... eta horrelakoak hitzetik hortzera dabilta azkenaldian gure artean. Badirudi astegun bati kolorea gehitzea dela kontsumoa adierazteko modu berria: zatok eta erosi; erosi neuririk gabe, pagotxa ederra galduko duzu bestela!! Bestela ere nahikoa kontsumitzen dugula iruditzen zait, eta horrelakoen beharrik ez dut ikusten, egia esan. Beno, nahikoa produktu, esan nahi dut, bai arropa bai janaria, eta baita azken generazioko edozein tramankulu ere.

Baina, hizkuntzaz ari bagara, nahiko kontsumitzen dugula esan dezakegu? Zoritxarrez, ez! Ez behintzat

asteburu honetan eguna izan duen hizkuntzaz ari bagara, gure hizkuntzaz, alegia, euskaraz. Domekan izan zen Euskararen eguna Eibarren. Opari garaian ere bagaudenez, zergatik ez aprobetxatu euskarari egin diezaiogun oparirik onena egiteko, hau da, mingainean dantzan erabiltzeko? Asma dezagun egunarentzako kolorea, gehitu diezaiogun asteguna, eta kontsumitu dezagun bizirik iraun dezan. Igande urdina? Domeka azula? Izena gutxienezkoa da. Kontsumoan dago gakoa. Eta eguna astea bihurtuko bagenu, astea hilabete, hilabetea urte eta urtea mende?

Malen Illarramendi Beitia

– Eta orain Alfa? –

Bataz beste % 10ekoa da langabezia-tasa Gipuzkoan, datu kezagarria da hau. Baina are kezagarriagoa da Eibarko, % 14,3, Gipuzkoako bigarrena Sorluzeren atzetik. Are txarragoa, azkeneko urteotan Eibar beti egon da Gipuzkoako langabezia-tasarik altuena duten herrien artean. Eusko Jaurlaritzarena da lan-mundua eta industria eskumena, berea da planak eta inbertsioak egiteko ardura, baina ahaztutako eremuak dira Eibar eta Debarrena osoa.

Eta orain Alfa? Euren etorkizunaren alde ari dira Alfako langileak. 800 langile zituen Alfak 2013an, 200 langile ditu orain. Gutxiago izan daitezke epe motzean Alfaren enpresetako bat ixteko erabakia hartzeko asmotan dabilen Zuzendaritza.

Egoera aztertuta badakigu bideragarria dela Alfa, zuzendaritzaren esku dago Alfaren etorkizuna eta langileen baldintza duinak bermatzea, borondatea da behar den bakarra.

Aspaldi hasi zen ematen deslokalizazioa eta desindustrializazioa Eibarren, honek eragina izan du langabezia eta PIBn. Galera eman da lanpostuen kalitatean eta baita herritar askoren eroste-ahalmenean ere.

Argi daukagu egoera hau iraultzea ez dagoela gure esku bakarrik. Industria erakartzeko mugak izan ditzake Eibarrek, baina puntako formazioa eta urteotako esperientzia daukagu eskaintzeko. Horregatik, Eskualdeko Berrindustrializazio-plana behar dugula uste dugu, eskualdean eman daitezkeen sinergiak landuz asko eduki dezake eskaintzeko Debarrenak. Horretarako, instituzioek elkarlanean, eta batez ere Eusko Jaurlaritzak, inbertsioak egin behar dituzte. Bitartean bertan eraindakoak kanpora joaten jarraituko du, aberastasuna ez da herrian geldituko.

Eibarko EH Bildu

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAHATS-FARRAL.- Parra. "Manuel Mendaroneko mahats-farralpien, onddo-jana egin genduan egun hartan".

MAHATS-KORDA.- Gaztelarazko 'racimo'. "Mahats-kordia eskuan, arbolapian etzinda artaldiari begira eguan".



ENRIKE SOSOLA

Badator eukaliptoak

Konturatu zarete? Pinua gaixotu egin zaigu. *Fusarium* izeneko gaitzak erasanda, ihartu eta gorritzen ari zaizkigu mendi sail handiak. Gauzak horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak pinua ordezkatzeko eukalptoaren aldeko aukera egin du. Orain gutxira arte zuhaitz horrek ez zuen gurean horrenbeste arrakasta, izotzak kalte egiten ziolako. Badirudi egokitu egin zaigula edota, agian, klima-aldaketa mesede egiten ari zaio. Pinuaren aldean azkarrago hazi eta urzale amorratua da, izugarria. Bere jatorrizko herrialdean, Australian, eremu hezeak lehertzeko erabiltzen dute, eltxo amorragarriak ezabatzeko. Bestetik, sua lagun du. Izan ere, eukalptoak sua erakartzen du lehiakide dituen zuhaitzak kanporatzeko, Galizia eta Portugalen maiz ikusten den bezala. Zalantzarik gabe, egurraren industriarentzat aukera egokia da; ez horrenbeste baserritar, herritar eta ingurunearentzat. Ur-horniketa kolokan jarri eta landa-eremuetara hondamendi-arriskua dakarren erabakia hartu da bulego ilunen batean, eztabaida publikorik gabe. Zeini eskatu ardurak suteek bazterrak errausten dituztenean? Nor zoriondu aurrerantzean katarroa sendatzeko eukalpto-lurrinik faltako ez zaigulako? Batek daki. Hegemonia politiko iraunkorregi baten kapitulu berria.

Alfako bihargiñak 5. greba eguna beteko dabe bixar

Alfako zuzendaritzak Auto Mecanizados enpresari aurkeztutako Enplegua Iraungitzeko Espedientiari bost egunetan greba eginda erantzutia erabagi eben bihargiñak azaruaren 24an egindako batzarrian, gehixenak horren aldeko botua emon eta gero. Espedientiak 40 bat lagun kalera jutatia eragingo leuke. Horren kontra azaltzeko grebarekin batera, "Mecanizados-eko lan-kidieri alkartasuna adierazteko eta enpresak egonkortasun eta etorkizuneko konpromisuak bere gain hartzia eskatzeko", mobilizaziñuak hasi zi-



ttuen aurreko asteko astelehengan, lehen greba egunian. San Andres egunaren bezperan, barriz, horren barri emoteko agerraldixa egin eben eguardixan eta arratsaldian, barriz,

manifestataziño jendetsuak ziherkatu eban herrixa. Arazia konpondu bittartian borrokan segiduko dabela iragarri dabe bihargiñak eta gaur eta bixar be greba egingo dabe.

asteko
400
datua

lagun inguruk hartu dabe parte udalak herritarren kejak eta proposamenak jasotzeko auzorik auzo egindako billeretan. 2018ko udal aurrekontuan 800.000 euro zelan inbertidu zuzenian erabagi ahal izango dabe herritarrak; kopuru hori zortzi guneren artian banatuko dabe, biztanle-kopuruaren arabera.

"Sanandreu Eguna" ospatu dabe Armerixakuak

Armerixa Eskolakuak San Andres eguna eta Euskararen Eguna batu dittue aurten eta azaruaren 29xan bixar alkarrekin ospatu nahi izan zittuen, "Sanandreu" izeneko jaixan. Goizetik ekin zetsen programiari:



hitzaldixak, zuzeneko musika emanaldixak, irakorketa kolektibua, txistorra, herri-kirol, jokuak eta beste jarduera batzuk ikastetxian egin eta gero, jaixa agurtzeko Untzagariño kalejiran jaitsi ziran, trikitilari-xak lagunduta.

Argindarraren kontsumuaren inguruko saio praktikuak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetarako Saillak, udalaren Ingurumen Saillarekin alkarlanian, Gipuzkoa Argitu programaren barruan, abenduaren 12rako bi taillar antolatu dittu, elektrizidade-kontsumuari buruzko datuak ezagutzeko eskubidia praktikan jarri eta, hortik abiatuta, jendiari erabagi egokixak hartzen laguntzeko azalpenak emoteko. Taillarrak Untzagako jubilauren

etxian izango dira, 10:00etan lehelengua eta 18:30xetan bigarreña. Herritar guztiak dake saiuetan parte hartzeko aukeria eta doan izango dira, baiña interesa dakenak bixarko izena emon biharko dabe edurne@izadi21.eus helbidera idatzizta edo 628 532 303 telefonora deittuta (09:00etatik 17:00etara). Informaziño gehixago www.gipuzkoaingurumena.eus/eu/argitu helbidian dakazue.





Garbitzailliak hitzarmenaren alde borrokan

Hezkuntzako garbitzailliak euren hitzarmenaren alde borrokan dihardue, bestiak beste 2014. urtiaz geroztik soldatak izoztuta dittuelako. Arazua kalera etertzeko eta negoziatiñua bultzatzeko asmuarekin mobilizaziño diferentiak antolatu dittue eta gure eskualdian egoeria salatzen alkarretartzia egin eben San Andres egunaren bezperan Eibarren, Unibersidade Laboralian, ELA, LAB, ESK, UGT eta CCOO sindikatuak deittuta.

Lagun taldia 63 urte geruago

Arrate Balentziagak bialdu deskuzen argazki bi honen artian 63 urteko aldia dago: zuribaltzian dagan erretratua umetan, 1954. urtian Txaltza Zelaixan etara eben lagunak atzera be alkartu eta "errepikatu" nahi izan dabe, orduan sasoiari "udaberriari eguazten umiak" ziranak eta gaur egun "udazkeniari sartuta daguazten helduak" diranak. Atzetik hasitta eta ezkerretik eskumara, honek dira argazkixan ikusten dittuzuenak: M^a Elena Elejalde, M^a Carmen Murua, Merche Ormaetxea, Arrate Balentziaga, Marivi Etxeberria, Mikel Bustindui eta Iñaki Bustindui. Talde polita benetan be!



autuan

AHAL DUGUK EGOITZA ZABALDU DAU ARRAGUETAN

Zapatuan inaugurau eban Eibako Ahal Duguk egoitza, Arragueta kaleko 18. zenbakixan. Lokalak erabillera anitza izango dau: herritarreri arreta emotiaz gain, erakusketak, hitzaldixak eta bestelako jarduerak egittuko asmua dakela aurreratu dabe. Lehelengo ekitaldixa gaur bertan izango da, 18:30xetan: eskola jazarpinari buruzko hitzaldixa emongo dabe, entzun nahi daben guztiendako.

5.291 ZENBAKIXAK IRABAZI DAU DENDARIEN TONBOLAKO SARIXA

Eibarko Dendarien Elkarteak antolatutako tonbolan, 300 euroko sarixa 5.291 zenbakixa dakanak jasoko dau (azaruaren 24an ONCEK egindako zozketako azken lau numeruak). Sarixa jaso ahal izateko irabazlia alkarteko ordezarixekin kontaktuan ipiñi biharko da, 688 71 41 63 telefonora deittuta.

FM Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



JULITA VALENCIAGA LASUEN
(3. URTEURRENA)

Eibartar asko apainjaztea eta gure bizitza dotoretzea izan dira zure bizi-eginkizunak

Eskerrik asko ZURE ETXEKOAK

Gabonetako kanpaiña hasi dabe merkatarixak

Astelehenian, argixak ixotziarekin batera ekin zetsan gabonetako kanpaiñari Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI). Udal ordezkariarekin batera, herriko dendari eta tabernarixen ordezkariak hartu eban parte Eibarko Bizikleta Plaziak hartu eban ekitaldixan. Aurtengo gabonetan kaliak apaintzeko ipiñi dittuen argixak 46.000 euroko gastua eragingo dabe; udalak 34.800 euro pagauko dittu eta gaiñontzekua, barriz, Eibar Merkataritza Gune Irekiak ipiñiko dau. Kanpaiñaren aurkezpena, bestalde, pixkat aurretik egin eban, udaletxian.



Herriko zortzi dendak jaso dabe "Singular dendak" ziurtagirixa

Gipuzkoako Merkataritza Federazioak eta Foru Aldundiak Eibarko lehen 'Singular dendak' omendu zittuan aurreko astian, Portalean: Otegui harategixa, Guby, Guby Birjiñape, Irritsa, Klaus, Khloe, Nia eta Xare. Zortzi honek "denda eredugarri" gisa aukeratu ditue, "zerbitzu eta arreta paregabeak" eskintzen dituela pentsatzen dabela eta beste establezimendu batzuredako adibide izatia nahi dabe, Gipuzkoako merkataritzaren bikaintasuna sustatzeko. Ziurtagirixak banatu aurretik, Jesus Cao enpresa-aholkularixak "Tokiko merkataritzaren etorkizuneko gakoak" izenburuko hitzaldixa emon eban ekitaldira juandako dendarixendako.


Lehen sorospen ikastarua hillaren 11tik 22ra

DYA Gipuzkoak lehen sorospen ikastarua eskinduko dau Eibarko bere ordezkarietan, Pagaegi kaleko 5. zenbakian. Ikastarua hillaren 11n hasi eta 22xan amaituko da, heziketa teoriko-praktikua eskinduko dabe eta ez da biharrezkua aurrez ezagupenik izatia. Izena emoteko 110 euro ordaindu bihar dira eta, behin

ikastarua amaituta, DYako sorospen titulua jasoko dau parte-hartzailliak. Ikastaruan egunerokotasunian agertu leikiazan arrisku egoereri zelau aurre egin irakatsiko dabe: bihotz biriken suspertzia, zaurixak, hausturak, erredurak... Klasiak 18:00etatik 21:00etara izango dira eta talde-kopurua mugatua da.

Txistorra Eguneko zozketan saritutako zenbakixak

Eibarko Txirrindulari Elkartekuk antolatutako XV. Txistorra Egunian egindako zozketan, lehen sari nagusixa 205 zenbakixari egokitu jakon. Horrekin batera, zozketan sarixa jaso eban beste zenbakixak honnek dira: "Tarteko helmugak" 34, 609, 657, 670 eta 1278; "Azkenak" 37, 45, 114, 201, 219, 267, 274, 325, 338, 371, 373, 389, 465, 466, 555, 559, 561, 563, 576, 587, 654, 746, 812, 832, 843, 873, 875, 899, 1210, 1212, 1224, 1257, 1260, 1380 eta 2015; sari berezixak 1375 (S.D. Eibar), 301 (Erreala), 1381 (Athletic), 866 (Aspe), 1249 (Oceta), 620 (Izagirre Anaiak), 661 (Eibar Eskubaloia) eta 2033 (Jon Errasti); lehen erre-serba 730; eta bigarren erre-serba 696. Txirrindulari Elkartekuk eskerrak emon nahi detsez zozketarako txartelak erosi ebeneri, baita txistorra jatera jua ziraneri be, alkartiari laguntzarren. Sarixak konsultatzeko www.clubciclistaeibarres.org helbidera jo leike eta sarixak jasotzeko, barriz, abenduaren 11tik 15era alkartiaren lokalera (Pagaegi, 3) jua leike, 19:00etatik 20:00etara. Amaitzeko, erre-serbako zenbakixa eukiz gero, kontakturako datuak alkartian lagatzeko edo cce@clubciclistaeibarres.org helbidera bidaltzeko eskatu dabe.



2.000 euroko
Gabonetako OTARRA

ZOZKETA
abenduaren 13an
egingo dugu



7an eta 9an kalean erosteko azken aukera

Eguenean (19:00-21:00) Zapatuan (13:00-14:00)

SALMENTA LEKUA:

El Corte Ingles, ...eta kitto!, Isasi okindegia, Mujika eta Otegui harategiak, Echeto eta Arriola prentsa, Maria Ospital (Calbeton), Bolintxo, AEK eta Udal Euskaltegia, Izadi loradenda, Lamia ileapaindegia eta Kultu



TUTULUMENDI



IDURRE
IRIONDO

2'3 millioi euroko laguntza jasoko dau Udalak Txonta birgaitzen hasteko

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saillak proposauta, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseilluak Eibarko Udalarari 2'3 millioi euroko diru-laguntza zuzena emotia erabagi dau, Txonta auzua birgaitzeko proiektuari ekiteko. Azaldu dabenez, "esku-hartze pilotu hori Gipuzkoako herrixetan hondatuta dagoazten auzuak suspertzeko Saillak sustatzen daben eta Gobernu Programan jasotzen dan birgaitzeko, birsortzeko eta barriztatzeko politikari lotutakua" da. Helburua eraikiñen mantentze zein konserbaziño-lan egokixak Europako Batasunaren "Horizon 2020" programan ezarritako efizientzia energetiko



eta irisgarritasun eskakizunekin integratzia dala diñue. Holan, alkarrekin esku hartuta Txonta "Ekoauzo" izenarekin ezagutzen danaren adibidia izatia nahi dabe. Horretarako, bestiak beste, eraikin zaharrak birgaitu egingo dira, efizientzia energetikoko eta irisgarritasuneko irizpidieri jarraituta eta etxebizitza barrixak jasoko dira (babestutakua tartian), beti be auzokueri parte hartzeko aukeria emonda ("auzoko bulegua" sortzia aurreikusi dabe). Programaren lehen fasean Txonta kaleko 17 pegoratan (2, 3, 5, 15, 17, 25, 27, 29, 36, 38, 40, 42, 44, 46, 48, 50 eta 52 zenbakixetan), 221 etxebizitzatan ipiñiko dabe arreta.

Ingeniaritza Eskolakuak barriztagarrixak eruan dittue Zientzia Astera

Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen daben Zientzia Astiaren hamazazpigarren ediziñuan parte hartu dau Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko Atalak, energixa barriztagarrixak ikuspegi praktiko batetik erakusteko ahallegiña egitten. Bilbon eta Donostian antolatutako ekitaldixetan egotiaz gain, Eibarko Ingeniaritza Eskolan bertan ibilbide didaktikua antolatzera animau dira oinguan. Azaldu dabenez, "helburu nagusixa energixa barriztagarrixak herrittarrerri gerturatzia da. Azken batian gure eguneroko bizitzan gero eta toki gehixago hartzen dihardue eta, gaiñera, gure gizartiaren iraunkortasu-

naren oiñarrixetako bat osatzen dabe. Jakinda energixa barriztagarrixak itturri naturaletatik lortzen dirala eta, gaiñera, agorteziñak dirala, hainbat esperimentu antolatu genduazten, benetan zelan



funtzionatzen daben jendiak hobeto ulertzeko". Horrekin batera, Aretxabaleta Lanbide Eskolarekin alkarlanian, plastikua birziklatzia posible eta bideragarrixa dala erakutsi eben, horretarako adibide praktikua baliatuta: 3D inprimagailuetarako zuntza sortuta. Urtero bezala, Zientzia Astiak arrakasta haundixa euki dau eta jende morduak hartu dau parte horren harira antolatutako ekitaldixetan.



SILVERIO LASKURAIN UBERA

1. URTEURRENA: 2016-XII-07

"Ez zara inoiz bakarrik joango,
mirotz gogoia da zure arnasa izango"

ZURE SENIDEAK

ABENDUAREN 8AN, OSTIRALA, URTEURREN-MEZA EGINGO DUGU,
EGUERDIKO 12:00-ETAN, SAN ANDRES PARROKIAN.



Fallaren "El retablo de Maese Pedro" eta "El amor brujo" operekin Madrilen izandako arrakastaren ondoren, "Andres de Egiguren" Orkestrak proiektu berriaren aurkezpen gisara emanaldia eskainiko du Eibarren, Coliseo antzokian abenduaren 15ean, 20:30ean (sarrerak 12 euro balio du, 8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Emanaldi berezia izango da eta, bestek beste Cristina del Barrio abeslariaren eta jatorri eibartarra duen Ander Telleria akorde-jolearen parte-hartzea izango du. Eta aurreratu dutenez Mozart, Bizet, Piazzola eta Tschaikovsky musikagileen lanak entzuteko aukera izango da, Aita Madina handiari lotuta. Gainera, kontzertuaren aurretik ikasleentzat bereziki pentsatutako emanaldi bi eskainiko ditu Pedro Palacinen eskutik 2008. urtean sortu zen orkestrak, 15:00etan eta 16:00etan.

– Nolako kontzertua emango duzue datorren astean Coliseoan?

Datorren urtean proiektu berriari heltzeko asmoa daukagu eta kontzertua proiektu berri horren aurkezpen modukoa izango da. Oso emanaldi berezia izango dela aurreratu dezakegu, sorpresa askorekin. Gurekin batera beste musikari batzuk izango dira, Cristina del Barrio mezzosopranoa, Ander Telleria akordeoilari eibartarra, abesbatzak...

Mozarten "Divertimento" bat joko dugu, "Carmen" operako abestiren bat, Piazzola eta Tschaikovskyren pieza batzuk ere eskainiko ditugu... horiek guztiak moduren batean lotuta aurkeztuko ditugu, gainera, baina lotura hori zein den emanaldian bertan argituko dugu, ez dugu dena aurretik kontatuko.

– Edozein modutan ere, Aita Madinak izango du zeresanik, ezta?

Hala da, gure proiektu berria Aita Madina musikagile handiari zuzenean lotuta dago eta. Izan ere, oñatiarra zen Aita Madinak sortutako musika oso-oso ugaria da eta, bera hiltzean, bere obretako asko estreinatu barik laga zituen. Izan ere, Nueva Yorken zegoela osasun arazoekin hasi eta 1972an Oñatira itzuli eta bertan hil zen. Ordurako bere musika mundu osoan ezagutzen zuten. Bestek beste gerra sasoiaren Argentinara joan zen eta euskal musika eta horrekin lotutako guztia



PEDRO PALACIN
(orkestra-zuzendaria):

"Orkestraren proiektu berria aurkezteko kontzertu oso berezia emango dugu"

ondo gordetzeko ahalegin handia egin zuen. Oñatiko artxibategian gordeta dauden bere obrak berreskuratu nahi ditugu, orkestarako musikazioa egin eta datorren urtean jendarean estreinatuzko asmoz.

– Eta obra horiek berreskuratu ahal izateko lana nolakoa izango da?

Lan handia izango da, denbora asko eskatuko du, baina aurretik daukagun erronka oso polita da eta ilusioarekin helduko diogu. Izan ere proiektuak oso harrera ona izan du orkestrako kide guztien aldetik eta datorren urtean estreinatu ahal izateko lan egiteko prest gaude.

– Andres de Egiguren orkestra zure eskutik sortu zen, musikari gazteei orkestra batean aritzeko aukera emateko. Gaur egun nolakoa da orkestra?

Ba musikari gazteekin sortutako orkestrak oso maila handia izatea lortu du. Eta hori beste batzuek esandako zerbait da. Iaz Madrilan, 'Zuloaga-Falla, historia de una amistad' erakusketarako prestatu genuen kontzertuarekin antolatzaileak aho-zabalik geratu ziren, ondo egingo genuela espero arren ez zutelako pentsatzen horren maila altua izango genuenik. Granadan lau orkestra daude eta, emanaldia amaitu ondoren, hango emakume bat

etorri eta inoiz ez duela horrelako orkestrarik entzun... horrelakoek aurrera egiteko indarra ematen dute. Urteak joan urteak etorri, musikarietako askok oraindik ere Andres de Egiguren orkestrarekin jo nahi dute, eurek eskatzen dute gustora daudelako. Eta, jakina, daukaten mailarekin orkestraren mailak ere gora egin du. Programa eta gauza ezberdinak eskaintzeko gauza dira eta, gainera, euren artean oso ondo konpontzen direnez oso gustora jarduten dute elkarrekin. Lagunak izateak asko errazten du lana.

– **Orkestrako kideak herri ezberdinetan sakabanatuta daude. Zuzendari moduan, horrek zure lana zailagoa izatea eragiten du? Nola moldatzen zarete entseguetarako?**

Oso maila handiko musikariak direnez ez dute izaten horretarako premiarik, kontzertua bakoitzak bere aldetik arazo barik prestatzen du, musikari bakoitzak badaki zer egin behar duen eta, kontzertua eman aurretik entsegua eginda nahikoa izaten da.

– **Orkestra honen zuzendaria ez ezik, zuk irakasle moduan diharduzu lanean, ezta?**

Musikaria, soinu-jolea eta orkestra-zuzendaria

Zazpi urterekin hasi zen Solfeoa eta Akordeoia ikasten **Felix Aranzabal "Angiozarko Zitsua"**rekin. **Mikel Bikondoa** maisuarekin jarraitu zuen eta Akordeoi karrerako ikasketak bikain batekin amaitu zituen. Sari ugari jaso zituen sasoi hartan: Nazio mailako bigarren sari batzuk; "Reina Sofia" lehiaketaren bigarren saria, 4. saria Euskadi Nazioarteko Lehiaketan; lehenengoa Palma de Mallorcan izandako nazio mailako XXVII. Akordeoi lehiaketan eta lehenengo saria Gipuzkoako Lehiaketan, Tolosan, beste batzuren artean. **Matti Rantanen, Mogens Ellegard, Alexander Dimitriev, Friedrich Lips** maisuekin ibili da ikasten. Musikaren Historia eta Musika Analisia ikasketak ere egin ditu. Donostiako Kontserbatorioaren Akordeoi irakasle plaza eskuratu zuen oposizioz 1987an eta 1994. urtera arte hango irakasle izan zen; urte hartaz geroztik Donostiako Musika Eskolako akordeoi irakasle da. Musika-jakintza sakontzearen, Kontrapuntu, Fuga eta Konposizio ikasketak egin zituen **Jesus Maria Alberdi eta Gotzon Aulestia** irakasleekin; sei urtez ibili zen horretan eta, ikasketak ohorezko matrikularekin amaitzeaz gain, Kontrapuntu eta Fuga saria eskuratu zuen; erdi mailako Konposizio saria eta Konposizio karrera-amaierako aparteko saria. Akordeoi maisu zela, Konposizio ikasketak eta Donostiako Kontserbatorioan Orkestra Zuzendaritza ikasketak egin zituen aldi berean; bikain notarekin eta ohorezko aipamenarekin amaitu zituen. Gipuzkoako Foru Aldundiak eman zion beka bati esker Orkestra zuzendaritza ikasketak Erromako AIDA Academian sakondu zituen, **Bruno Aprea** maisuarekin; ikasketa-aldi hura amaitu zuenean Erromako ARTS Academian aritu zen; ohorezko matrikula jaso zuen ikasketa haiek amaitu zituenean; aldi berean, ahots zuriko Eibarko Goruntz abesbatzaren zuzendari zen sasoi hartan. Tuscaniako Jaialdian aritu zen lehen aldiz zuzendari-lanetan, Bulgariako Stara Zagorako Orkestarekin, Beethoveni buruzko kontzertu baten. Horrez gain, Extremadurako Orkestra Sinfonikoa, Barikoa eta

Malagako Concerto Orkestra ere zuzendu izan ditu. Euskal Herriko Gazte Orkestak (EGO) antolatutako Zuzendarien Jardunaldietan ere parte hartu izan du. 2002. urtean, Ermuan egin zen Txistularien Alardean eskaini zen kontzertuaren zuzendari izan zen; egun hartan, Durangaldeko txistulariek eta Eibarkoek, Ermuko abesbatzak eta Eibarko Goruntz abesbatzak hartu zuten parte. Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika arloko Doktorego ikastaroak egin ditu EHU.

Bai, Donostiako Udal Musika Eskolan ematen ditut klaseak. Adin guztietako ikasleak dauzkut, 8 urtetik hasita 75 urte eta gehiagokoak ere badituzte. Badakigu gaur egun eskolatik kanpora hamaika gauza ikasteko aukera dagoela, baina nik ume guztiak animatuko nitzuke musika probatzera. Gainera, neurologoek egindako ikerketek argi erakusten dute musikak oso eragin positiboa duela burmuinaren garapenean eta psikomotritzitatea, koordinazioa eta beste gaitasun batzuk hobetzeko mesedegarria dela.



2008an orkestraren sorreran hasitako musikari askok gaur egun ere taldea jarraitzen dute; hori bai, urteekin euren maila etengabe igotzen joan da.

Itziarreko WEC Taldeko konpainiak

LAN-ESKAINZA



CNC tornuetan adituak behar ditu,
 kontratu egonkorra eta soldata lehiakorrarekin

Berehala hastea eta barneko prestakuntza

GRUPOWEC
 thinking forward

Interesatuak bidali CV gaurkotua empleo@grupowec.com helbidera

Tel. 943-606061

Bost egun eta 50 ordu sormenaren lurraldea bizitzeko

52 DURANGOKO AZOKA

kulturaren plaza

Abenduaren 6tik 10era

Bost eguneko iraupena izango du Durangoko Azokaren 52. edizioak. Kulturaren plazara gerturatzeko direnek mota guztietako jarduerak aurkituko dituzte: kontzertuak, hitzaldiak, emanaldiak... 52. edizioa beteko du aurten Durangoko Azokak, eta, azken urteotako ohiturari eutsiz, bost eguneko iraupena izango du literatura eta musika ardatz dituen Euskal Herriko azoka preziatuenak. Hain zuzen ere, **abenduaren 6tik 10era egongo dira zabalik Landako guneko ateak, 10:00etatik 20:00etara.**

Azoka, horrenbestez, euskal idazle eta musikarien proiektu berrien erakusleho bihurtuko da, beste behin ere. Hala, kulturaren plazara gerturatzeko direnek mota guztietako jarduerak aurkituko dituzte: kontzertuak, hitzaldiak, emanaldiak, haurrentzako ekintzak, tailerrak, ikuskizunak... Hori guztia, 700 metroko eremu batean, hainbat gunetan banatuta (Areto Nagusia, Ahotsenea, Saguganbara, Plateruena, Irudienea, Szenatokia, Kabi@ eta Azoka TB).

Euskal kulturaren eskaintza zabalak eta bertan sortzen den giroak erakarrira, milaka bisitari batzen ditu urtero Azokak. "Bizitzeko DA" izan zen 2016ko leloa, eta helburu hori bete egin zela azpimarratu zuten Gerediaga elkartekoei: "Gero eta gehiago,

bisitaria ikusle izatetik parte-hartzaile izatera igarotzen ari da". Hori dela-eta, 52. edizioko leloa **"Sormenaren lurraldea DA!"** izango da. Kultur eragile guztiak bartzeten dituen espazio moduan agertu eta bertan ematen diren istorioak, ikuskizunak, abenturak... aldarrikatu nahi ditu lelo horrekin Azokak. Jose Antonio Sistiaga margolaria da 52. edizioko kartelaren egilea, pelikula esperimentera bateko filmina baten oinarrituta eta eskuz margotutako zeluloidea. Irudiak "unibertsoaren sorrerara egindako bidaia" iradokitzen du.

Bost eguneko azoka izango dugu hirugarren urtez. Ikasle Eguna bigarren egunean egingo da eta arratsaldean helduentzako tailerrak antolatuko dira bigarren urtez, batik bat berbalagun eta euskaltegi-tako ikasleei begira. Eta bost dira ere lurralde honek dituen elementu nagusiak: sortzaileak, hartzaileak, azpiegiturak, sareak eta kultur politikak. Antolatzaileek diotenez, "bost egun eta 50 ordu dituzue errutinatik atera eta sormenaren lurraldea bizitzeko. Bidaiatu sormenaren lurraldera! Ez zarete damutuko".

400 nobedade erakustez gain, 200 kultur ekitalditik gora

Guztira, 240 standetan banatuko dira euskal sortzaileek aurten argitaratutako lanak. Horieta hamasei auto-ekoizpenak izango dira. Argitalpenei dagokienez, 257 liburu, 92 disko, 19 aldizkari eta 5 bideo



Ez da Olentzero, baina euskaraz irakurtzeko ohitura sor dezake.

Belaunaldiz belaunaldi transmititzeko ohitura onuragarria dugu literaturaz eta musikaz gozatzearena, edozein unetan opari ere bihurtu daitekeena. Data hauek aproposak dira horretarako.

aurkeztuko dituzte 52. edizio honetan. Gainera, bisitariak jokoak, agendak edota egutegiak aurkituko dituzte bertantxe. Era berean, Durangon 200 kultur ekitalditik gora egongo dira Azokak dirauen bitartean. Lehenengo egunean, adibidez, inaugurazio ekitaldiak hartuko du, batik bat, garrantzia. Hurrengo eguna ikasleei zuzenduta egongo da, nahiz eta publiko orokorrarentzat ere egongo den zabalik. Azpimarratzekoa da, halaber, abenduaren 8an Argizaiolaren erreparorako eta sormen beka aurkezteko "Omentzetik Ereitera" ekitaldia egingo dutela, 20:00etan, San Agustín Kultur Gunean. Argizaiola Sariaren ordezkoko ekitaldia izango da hori.

Musikari dagokionez, nobedade ugari ekarriko ditu Durangoko Azokak aurten ere. Estilo anitzeko proposamenak ikusiko ditugu Landakon jarriko dituzten standetan, rock musika, doinu elektronikoak edota ska soinuak lantzen dituzten musikarien lanak, adibidez. Aurreikuspenen arabera, Berri Txarrak Infrasoinuak izango da 2017ko disko salduenetakoa, baina proiektu interesgarri gehiago aurkeztuko dituzte Azokan bertan.

Gune bakarra baino askoz gehiago

Areto Nagusia.- Azokako partaideen zabalak lanen aurkezpenek eta Gogoetaren Plazako solasaldi eta mahai-inguruek osatuko dute bertako programazioa. 44 aurkezpen egongo dira bertan, besteak beste, politika eta gizarte gaiak jorratzeko. **Gogoetaren Plazak,** laugarren urtez, kultura gintzaren hausnarketak eta eztabaidak Azokaren bihotzera eramango ditu hiru egunetan zehar. Egunerok kazetari ezberdin batek gidatuko ditu saioak.

Ahotsenea.- 10 urte bete ditu eta aurten ere bi txokotan egongo da banatuta: alde batetik, kontzertuen karpa egongo da, Landako aldameneko eremu berdean ko-



"Sormenaren lurraldeak" aukera ugari eskainiko dizkigu euskararen proiektu kulturalak dastatu eta aberastasun horrekin gozatzeko.

katuta, eta bestetik, literaturari eskainitako txokoa ezarriko dute Landakon bertan. Guztira, 120 proposamen hartuko ditu Ahotseak: 70 kontzertu eta 50 aurkezpen. Hala, kontzertuen karpak denetariko musika izango du oinarri. Egunean hamalau kontzertu egongo dira, hamar orduko musika zikloa, horrenbestez. Musika estiloari dagokionez, rocka nagusituko da, nahiz eta pop doinuak ere entzungo diren, baita trikitixa ere. Bestalde, zenbait musikari kontzertu akustikoak emango dituzte.

Saguganbara.- Haurrek eta familiak euskal literaturaz eta euskal kulturaz gozatzeko gunea da. Euskarazko haur eta gazte sorkuntza ezagutarazteko aurkezpenak, ipuin kontaketak, dantza saioak eta tailerrak antolatzen dituzte.

Plateruena.- Urtero bezala, Durangoko Azokaren baitan formatu handiko kontzertuak izango ditugu egun horietan zehar. Gauero euskal talde bat taularatuko da euren disko berria aurkeztera, 22:30etik au-

rrera: Governors abenduaren 6an; Arkada Social 7an; Audience 8an; eta Glaukoma 9an igoko dira oholtzara.

Irdiarena.- Euskal Herrian eta euskaraz sortutako lanez gozatzeko, ikus-entzunezko plazera eramango dute hara. Aldarte, kolore, intentsitate gradu ezberdinetan ikusi, entzun eta eztabaidatzeko aukera izango da aurten ere bertan.

Szenatokia.- Arte eszenikoen gunea da eta bertan antzerki, mikroantzerki eta erakustaldiak izango dira aurten.

Kabi@.- Kultura eta eduki libreen gunea da, kultura digitalaren eremuko sortzaile, enpresa, web garatzaile eta ekintzaileen topaleku.

Azoka TB.- Azokak irauten duen egunetan eta ordutegian emisio jarraitua eskainiko du euskarazko tokiko telebistetan (eta streaming bidez www.durangokoazoka.eus webgunean).

Eibartarrak ere izango dira Azokan

Herriko ordezkariak izango dira, beste behin, Durangoko Azokan. Horrela, **Asier Serranok** "Denen mina da nirea" bere lanaren inguruko solasaldia eskainiko du 10ean (goizez, 11:30/11:55) eta **Deus Ez** musika taldeak Ahotsenean joko du zuzenean 7an (goizez, 11:40/12:10). Horrez gain, Deus Ez talde beraren diskoa, Miren Narbaizaren **Mice-rena**, **Mursegoren** "%100 Oion" eta **Su ta Gar-en** "Su ta Gar antzokietan" lanak ere erosi ahal izango dira, Ibon Muñozaren "Udaberriari bizi gara" poema liburuarekin batera. Ohikoa denez, Eibarko Udalak eta Badihardugu elkarteak stand bana izango dute Durangon.

musika zuzenean.com
 DURANGOKO DISKO AZOKA | ABENDUAK 6-10 | ARTEKALE 53

ABEREH AKABU ANEGURIA APALATXE ARKAIKO ATAZAL
 AZKEN AUKERA BEIRA BIRKIT DEIEDRA DEUS EZ DIDAR
 DUKKHA ENERITZ FURYAK ERAULERIS HUTS
 EUSKATALITES HIRI GALDIJAK KASKEZUR KATEZ
 KOIU LA BANDA DEL ABUELO LIOT MARLIK
 MG BANDA NICE NEBRASHKA PELAX
 ODDLAREN MINTZOA PELAX +TELMO
 PERLATA RODEO ROTTEN XII ZAKILL
 SERMONDS SORDOTAN BABIES VELOZET
 THE ICE COMPANY THE MOCKERS
 TRINI FOX TXAPITO GUZMAN
 ZAPARRA XABI SAN SEBASTIAN
 UNIDAD ALAVESA ZEZENAREN TALDEA

Deus Ez Eibarko musika taldeak azken hilabeteotan prestatutako lanaren emaitza erakutsiko dute Ahotsenean egunean emango duten kontzertuan.

ONCE

Helburuak

Urte askotako ibilbidea egin eta gero, zerbitzuak eskaintzeko gogoarekin diharduen erakunde gaztea eta bizia da ONCE. Euren lanaren oinarrian ikusmen urritasun larria duten pertsonak daude, eta pertsona horiek ahalik eta bizitza autonomoena eta normalizatuena izateko dihardute beharrez.

Zerbitzuak

Eskaintzen dituzten gizarte zerbitzuak hauexek dira:



arreta psikologikoa, tifloteknologia (itsuentzako teknologia), errehabilitazio integrala, animazio soziokulturala, liburutegia (braille eta soinuduna), braille irakasleak eta nagusientzako laguntza). Gainera, lan arloan, ONCEk 20 urte baino gehiago daramatza itsuei eta beste urritasunen bat daukatenei lana eskaintzen. Pertsona asko daude ONCEko produktuak saltzen.

Gutxieneko ikusmen-hondarra dutenak Arragueta kalean dauzkaten lokaletatik pasatzera animatu nahi dituzte, bertan erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuen berri emango diete-eta. Aldi berean, %33ko urritasuna daukatenek ONCEk eskaintzen dituen lan aukerak ere ezagutu ditzakete.

Helbidea: Arragueta 7
Telefonoa: 943 82 18 87
E-maila: rvv@once.es
Kontaktua: Miren Valero



Hainbat gizarte zerbitzu eskaintzen ditu ONCEk: arreta psikologikoa, teknologia, braillea...

BEHEKO TOKIA

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Beheko Tokia gizarte zentrua 1994an sortu zen eta bere lehen egoitza Karmen 3an izan bazuten ere, 1998tik Karmen kaleko 6. zenbakian daude, kale horretako plazoletaren gainean daukaten lokal ederrean. Jubilatua, pentsionistak eta elbarrituak elkartu eta aisialdirako toki bat eskaintzea da elkartearen xedea.

Ekintza nagusiak

Beheko Tokiak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean zehar:

- Aisialdi jarduerak (Errege eguneko jaiak opariak banatzen dira, San Valentin egunean 45 urte betetzen dituzten bikoteei omenaldia egiten zaie, 85 urtetik gorakoentzako omenaldia eta bazkaria, elkartearen urteurrenean ikuskizun eta ekitaldi mordoa egiten da, auzoko jaiak (San Pedroak), txistorrada Santo Tomas egunean.
- Kultur jarduerak: astebeteko irteera bat estatuko probintzia batera, Europako hiri batera bisita eta Euskal Herrian zehar zortzi irteera.
- Prebentzio ekitaldiak. Karta, toka eta igela lehiaketak, masajea fisioterapeutarekin, pedikura-manikura, EPArekin elkarlana...
- Jarduera kolaboratiboak: BIZTUrekin Nagusien Hamabostaldia antolatzen dute, lokala beste talde edo erakundeen eskura jartzen dute (bakunazioa, Ikasten, Kaleetan Kantuz...)

Telefonoa: 943 12 12 05
WhatsApp: 608 81 92 03
(bidaiei buruzko informazioa)
Kontaktua: Jose Daniel Conde



Besalura (Girona) egindako irteera. Urtean zehar hainbat irteera egiten dituzte Beheko Tokikoek.

MIKEL BAENA (kazetaria)

“ Saiatuko naiz eibartarrei **beste aukera informatibo** bat ematen ”

24 urte ditu baina bide luzea egin du dagoeneko kirol-kazetaritzaren munduan. Eibar KE-ren partidua eman zituen Bigarren B mailan zegoenean; AS, Radio Euskadi eta beste hainbat tokitan ikusi dugu; eta Radio Marca Eibar (100.8 FM edo radiomarciaeibar.com) zuzentzeko ardura hartu berri du. Bere bokazio-lana kazetaritza da eta Eibar KE-ren olatua hartuta erronka erakargarriari heldu dio.

– Radio Marca Eibarren etapa berria zuzenduko duzu. Nolako erronka izango da zuzentzat?

Erronka polita. Gaztea izanda, irratia nik bakarrik aurrera ateratzea aukera ona da. Nirekin ikasi zuten kazetari asko lan gabe daude eta aukera hau edukitzea pozgarria da.

– Nola sortu zitzaizun Radio Marca Eibar zuzentzeko aukera?

Karrera amaitu nuenenean zazpi hilabete egon nintzen Radio Euskadin superbekario moduan eta, gero, Alberto Negro Radio Euskadiko kirol arloko buruak esan zidan Nika Cuenca jendea behar zuela AS egunkarirako Eibarren. Eibar KE-ri buruzko informazioa lantzen hasi nintzen AS-en eta kazetari asko ezagutzeko aukera eduki nuen, tartean Borja Rodriguez. Radio Marcan astean behin Eibarko kirolari buruzko atala egitea eskaini zidan eta horrela ikasi nuen irratimahiarekin lan egiten. Bi hilabete eta gero utzi egin nuen, baina Borjak bere tokia utzi berri du eta berak utzitako lekua

hartzea eskaini dit. Orduan, ekipoa erosi diot eta proiektu berria hasi dut.

– Programazioan berritasunik sartzeko asmorik bai?

Borjaren ildotik jarraitzea da nire ideia. Radio Marca izanik, kirola izango da gai nagusia, baina herriko kontuak ere jorratuko ditut. Udalarekin berba egiten ari naiz eta noizean behin alkatea etorriko da hainbat galderari erantzutera. Daukan pisua kontuan hartuta, Eibar KE-ri buruz jardungo dut denbora gehienean, baina astean behin beste kirolei buruz berba egiteko programa bat egingo dut. Hiriri buruzko tertuliak ere egingo ditut eta ikusiko dut zer egin daitekeen aurrerago, oraindik lehen astea delako proiektu berri honentzat. Eibarko biztanleriari beste aukera informatibo bat ematen saiatuko naiz eta hori berri ona dela deritzot, batez ere kazetaritzaren egoera kontuan izanda.

– Beti nahi izan duzu irratian lan egitea?

Bai, nire ametsa beti izan da kazetari moduan lan egitea, irratian batik bat. Gauero en-



tzuten dut irratia, horrela gertatzen naiz lo. 2-3 urterekin, adibidez, gurasoekin kalera irteten nintzenean, tabernetako egunkariak hartzen nituen irakurtzeko. AS egunkaria izaten zen gainera, eta gero hor idazten amaitu dut! Ia oinez ibiltzen hasi baino lehenago ikasi nuen irakurtzen. Kirola ere beti izan dut gustoko eta Eibar KE lehen mailan ibili izana aprobetxatu dut. AS-en idazteagatik jende gehiagok ezagutzen nau Espainia mailan eta orain bi urterako konpromisoa hartu dut Radio Marca Eibarrekin.

– Irratia zaharra da eta ‘hiltzar’ zela esaten zen, baina bizi-bizirik dago. Zein da bidea?

Gaztea izanda irratia al-deko apostua egin dut eta horrek zerbait esan nahi du. Irratiak bizitza dauka, agian ez modu konbentzionalean, digitalizazioa jotzen delako, baina asko entzuten da.

– Euskarak tokia izango du Radio Marca Eibarren?


Oraingoz gaztelera egiten dugu, baina etorkizunean euskaraz aritzea aztertuko dugu, nahiz eta Radio Marca izanik zaila izan.



Txintxarridun ardiaren atzetik, beste denak... edo ez?

Animalia adimentsu batean pentsatzeko eskatuz gero, ardia bururatuko al zitzaizuen? Orokorrean inozotzat jo izan dugu, baina azken aste hauetan Cambridgeko Unibertsitateko ikerketa talde batek frogatu duenaren arabera, ardiak uste baino azkarragoak dira. Izan ere, animalia hauek giza aurpegiak ezagutu eta gogoratzeko gaitasuna dutela erakutsi dute, orain arte gizaki eta primateei bakarrik egozten zitzaaien ahalmena.

Ondorio honetara iristeko, ardiak pertsona famatuaren aurpegiaren ezagutzan trebatu dituzte: ikastaldian zehar ardiek, bi argazkiren artean pertsona famatuarena aukeratu behar zuten. Aukera egoki bakoitzeko janaria ematen zitzaaien sari gisa, oker eginez gero



ordea, txirrin batek jo eta ez zuten saririk jasotzen. Azterketa orduan, ardiek %80an asmatu zuten famatuaren aurpegia aurrez aurreko argazkietan eta %70 ean aurpegiak biratuta agertzen zirenean. Era berean, ardiaren zaintzaileen argazkiak gehitu ziren azterketara eta,

nahiz eta irudi horiek lehenengo aldiz ikusi, %70ean asmatu zituzten.

Eta pentsatuko duzue, hau guztia zertarako? Ba alde batetik, ardiaren ahalmen kognitiboaz aztertzeko eta bestetik, gizakionarekin konparatzeko. Hain zuzen ere, ardiaren garunaren tamaina eta biziaren luzera dela eta, gizakiok heldutasunean jasaten ditugun gaixotasun degeneratiboak ikerketa eredu erabilgarriak bihurtu daitezke, Huntingtonen gaixotasuna esaterako. Gaitz honek koordinazio motorea, aldarria eta pertsonalitatea aldarazi, eta pentsatu, arrazoitu eta hitz egiteko ahalmena galarazten ditu besteak beste. Ikerketa taldea, Huntington gaitza izateko genetikoki eraldatutako ardiekin hasi da lanean, gaitasun guzti hauen galeraren monitorizazio bat egiteko helburuarekin. Honek gaixotasunari aurre egiteko tratamendu berriak frogatzeko aukera berri bat irekitzen du.

Albistean gehiago sakondu nahi duenak, "Royal Society: Open Science" aldizkari zientifikokoan eskuragarri du artikulua (DOI:10.1098/rsos.171228).



iraia muñoa

IKERTZAILEA

Eskoletan baratza bai ala bai!

Gaur egungo bizimoduarekin askotan ahaztu egiten dugu janaria nondik datorren, nork edo nola ekoizten den. Badirudi esnea "tetrabrik" batetik datorrela, behien errapatetik baino. Gure arbasoek Lurrearekin zuten lotura estua galtzen dihardugu. Horrela jarraituz gero, elikagaien jatorria ahazteaz gain horiek ekoizteko jakituria ere galduko dugu. Txinako esaera zahar batek dioen bezala, egun batez zoriontsua izatea nahi baduzu, mozkortu zaitez; urte betez izatea nahi baduzu, ezkondu zaitez, baina bizi-tza osorako zoriontsua izatea nahi baduzu, landu baratza bat.

Eskola-baratzea baliabide bikaina da ikasleek euren natur eta giza inguruneari buruzko esperientzia anitz bizi ditzaten: ingurunearekin ditugun menpekotasun eta harremanak ulertzeko; ingurugiroa zaintzeko; eta ingurugiroaz arduratzeko jarrerak eta ohiturak praktikan jartzeko. Janaria lortzeko prozesuan, ortua tresna paregabea da gure natur baliabideek duten garrantzia bertatik bertara ikusteko. Ortuaz baliatuz bi xede lortzen dira: alde batetik, ingurumena errespetatzen ikasiko dugu (ura, lurra, haziak...). Bestetik, baliabide horiek mun-

duko herri guztien eskura egotea beharrezkoa dela ulertuko da munduan gosetearekin bukatzeko. Ortuak, nekazaritza praktikan jartzeko erabiliko da (haziak nola eskuratu, nola gorde, non erein edo landatu, jakiak nola prestatu...). Izan ere, jakien inguruan belaunaldiz-belaunaldi transmititu diren eza-gutzak eta ohiturak berreskuratuko dira. Horrela, guraso, aitona-amonak, irakasle eta haurren arteko elkarlana sustatuko da.

Jakin badakigu elikadura osasuntsu baten garrantzia errazago ulertuko dela norberak bere janaria ekoizten badu. Modu horretan, haurrek hobeto ulertuko dituzte nekazari eta landa-inguru biziaren garrantzia, eta eredu globalizatu neoliberalak bultzatzen duen sistema produktibista intentsiboak sortzen dituen arazoak. Horien berri ez izatea nahiko arrunta baita (batez ere, hirietan bizi direnean). Jakin badakigu, giro hiritarrak bizkarra ematen diela landa eremuari eta lehen sektoreko jarduerari. Hau horrela izanda, bere biziko garrantzia dauka eskola-baratza proiektuak. Dagoeneko, Gipuzkoako hainbat eskolatan martxan dago. Hala ere, hasitako bideak benetako konpromisoa eta bultzada behar du, guztiona: aiton-amonena beraiek baitute ezagutza, gurasoena elikadura osasuntsu bat eredu izaten eta, administrazioarena proiektua behar dituen baliabideak eskura jarri. **Izan ere, ongi janez salbatuko dugu Lurra (Perico Legasse).**



iratxe vazquez

PSIKOPEDAGOGOA

Sanandresak17



Txistorraren Eguna



Afaria Gaztetxean



Bertsolariak



Aizkolarien txapelketa



Trikitilariak



Talao



Baserritar jantzita dantzan




**argazkiak:
Maialen Belaustegi**



Bakailao txapeldunak



Kontzertua



Trikitaliak



Bertso jaialdia



Euskal Selekzioa





Sarituen taldea

Kofrade berriak



Erromeria





YANIRE SAGREDO: Eibar Industrialia - "Tximenea" -.

Eibarko 38 korrikalarik amaitu zuten Donostiako Maratoi egunekoak

18k amaitu zuten Donostiako Maratoia, 9k maratoi erdia eta beste 11 atletek 10 kilometroko proba. Aipatutako 38 horietatik, zazpi osatu zuten emakumezkoen ordezkariak. Aurreko domekan guztira, 2.705 korrikalarik amaitu zuten maratoia, 2.103k maratoi erdia eta 882k 10 kilometroko lasterketa. Hiru probetako irabazleei dagokienez, maratoian Kiproko Maiyo (2:12:55) eta Rehina Serro (2:44:23) izan ziren onenak, Iraitz Arrospeide (1:05:35) eta Cecilia Norrbon (1:17:35) maratoi erdian eta Ander Sagarzazu (31:00) eta Maite Etxezarreta (36:26) 10 kilometroko proban. Jarraian

Maratoia.-

381	Eneko Laskurain.....	2:58:35
480	Imanol Lahidalga.....	3:02:02
592	Jon Zubia.....	3:07:57
596	Rafa Prieto.....	3:08:08
616	Mikel Laskurain.....	3:08:46
898	David Arias.....	3:18:29
942	Juan Luis Azkune.....	3:20:41
1128	Eduardo Uribe.....	3:26:52
1138	Ane Ziaran.....	3:27:00
1203	Ibai Rascon.....	3:28:50
1301	Adolfo Malaga.....	3:31:45
1619	Liher Prieto.....	3:41:34
1851	Eneko Azurmendi.....	3:49:27
1935	Mikel Lizarralde.....	3:52:42
1966	Ariane Zubia.....	3:53:51
2232	Asier Eraso.....	4:04:37
2338	Ignacio Varona.....	4:11:12
2432	Eduardo Alvarez.....	4:17:38

eskaintzen ditugu eibartarrek sailkapenean lortutako postuak eta egindako denborak.

Maratoi erdia.-

189	Adur Juaristi.....	1:23:45
234	Igor Gomez.....	1:25:43
255	Juan Zubiaurre.....	1:26:41
273	Raul Fernandez.....	1:27:04
291	Jokin Alonso.....	1:27:42
476	Javi Argueda.....	1:32:55
1533	Roberto Gallego.....	1:58:33
1758	Ane Mendia.....	2:04:35
1842	Alvaro Gabilondo.....	2:07:20

10 kilometro.-

126	Aitor Fernandez.....	40:15
242	Mikel Perez de Obanos.....	46:14
479	Amaia Fernandez.....	54:33
480	Jesus Unzueta.....	54:34
591	Teresa Herrero.....	57:56
592	Jose Nieto.....	57:56
594	Jorge Carrion.....	57:56
707	Pablo Luceba.....	1:00:19
708	Iratxe Marcos.....	1:00:19
747	Susana Martinez.....	1:01:55
748	Carlos Javier Perez de Obanos.....	1:01:55



Eibar Eskubaloiak bere indar guztia kaleratu zuen aurreko asteburuan



Eibar Eskubaloiak klubeko talde guztiak aurkeztu zituen aurreko asteburuan, lehenengo barixaku arratsaldean Ipurua kiroldegian egindako ekitaldian eta geroago domeka eguerdian Untzagan prestatutakoan. Asteburuak, bestalde, denetarik izan zuten eta 1. Nazional Mailako Somos Eibarrek (Trapagan 27-16) eta Euskadiko Txapelketan lehiatzen duen emakumezkoen Avia Eibar Eskubaloiak (Ipuruan 23-34 Leizaranekin) galdu zuten bitartean, Gipuzkoako 1. Mailako Haritzak 34-21 irabazi zion Tolosa B-ri. Jubenil mailako bi taldeek ere galdu egin zituzten euren partidua, baina kadete mailako laurak nagusi izan ziren jokotutako neurketetan, euretako hiru gainera kanpoan jokotuta.

Binakako txapelketaren hirugarren jardunaldiak Astelena bisitatuko du

Abenduaren 10eko jaialdiko partidu nagusian Aspeko Irribarrak eta Merino II.ak Asegarceko Victor eta Albisuri egingo die aurre, txapelketa amaitzeko jokatu beharreko 14 jardunaldien barruko hirugarrenean. San Andres egunean jokotutako bigarren jardunaldiko lehenengo norgehiagokan, bestalde, Altuna III.a eta

Martija Elezkano II.a eta Rezusta baino gehiago izan ziren, 22-13ko azken emaitzak ondo erakusten duenez. Jaialdiak giro ona eskaini zuen, frontoiaren hiru laurdenak betetzera, 750 ikusle ingururekin. Lehen partiduan Jaka eta Tolosa 22-18 gailendu zitzaizkien Dario eta Jaunarenari, neurketa parekatuagoan.

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
 euskaratik gaztelarrera,
 gaztelerratik euskarara,
 eta ingelesetik euskarara.
ZERBITZUA
 elkartea@etakitto.eus

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
 PINTURA LANAK S.L

Ipuruako gimnastek denboraldiko une garrantzitsuena bizi dute txapelketen erdian

Alacanten eta Valladoliden jokoan ipinitako Espainiako Txapelketetan murgilduta, Ipuruako gimnastak denboraldiko sasoi berezi eta beteenean sartu dira. Hilaren 22tik 26ra Alacanten jokatuako hiru txapelketetan hartu zuten parte eibartarrek eta, podiumera igo barik ere, ondo aritu ziren tapiz gainean. Senior taldeak denboraldiko saio onenetakoa egin zuen hiru pelotekin eta bi sokekin osatutako bi minutu eta erdiko muntaian, baina azken arriskuan jausitako aparatuak 8. postuan kokatu zuen euren ariketa. Nahia Arguiz, Alaitz Aranbarri, Elene Varela, Malen Txurruka, Jennifer Hernandez eta Elena Sudupek indarrez betetako erakustaldia eskaini zuten. Oinarrizko

kadete taldea ez zen atzean geratu eta, gimnasia erritmikoan aparatu zailenetakoa den bost zintekin, 13. postuan sailkatu zen 68 taldeen artean. Ana Portu, Ainhoa Bizkarra, Arrate Baskaran, Izaro Altuna eta Sara Arangurenak osatu zuten bostekoa. Banakako Kopan parte hartu zuten jubencil mailako Lorea Armendariz eta Arrate Baroja 12. eta 35. postuetan sailkatu ziren, hurrenez hurren, 69 gimnasten artean.

Abenduaren 1ean eta 2an, taldekako ligaren azken etaparen barruan, senior eta infantil mailetako taldeak Taldekako Espainiako Txapelketan izango dira Valladoliden. Osatu beharreko bina ariketetan ahalginduko dira euren onena ematen.



Eibartarren oinarrizko kadete taldeak 13. postua eskuratu zuen Alacanten.



Kalamuako bost ordezkari defentsa pertsonaleko gerriko beltza eskuratu zuten

Aurreko domekan Legazpiko Bikufia kiroldegian egindako azterketak gaituta, Kalamuako bost kirolari defentsa pertsonaleko gerriko beltza lortu zuten: Jon Arteagak, Hegoi Estebanek eta Javier Asoreyk bigarren dan-a bereganatu zuten eta Joseba Garcia de Eulatek eta Ane Rojok lehen dana. Defentsa pertsonaleko proba horietako epaimahaian izan ziren Kalamuako Julio Gallego eta Manu Agirre ere, nazional mailako entrenatzaileak modalitate horretan.

Garaipen bikoitza lortu zuen Aitor Hernandezek aurreko asteburuan

Specialized-Ermua Impulso taldeko txirrindularia nagusitu egin zen bai zapatuan Berrizen jokatuako ziklo-kros proban eta baita domekan Lezaman jokatuakoan ere. Ermuarra erraz nagusitu zen proba horietan, ondo aprobetxatuz Felipe Orts, Javi Ruiz de Larrinaga eta Ismael Estebanen hutsuneak. Lokatza izan zen proba bietako

protagonista eta Hernandezek erakutsi zuen bikain moldatzen dela esparru horretan. Lezama lasterketan Gorka Izagirre errepideko profesionalak hirugarren amaitu zuen, podiuma osatu zuen Iñigo Gomezen atzetik. Aipatutako garaipen horiekin Aitorrek dagoeneko sei proba bereganatu ditu aurtengo neguko denboraldian.



Aitor Hernandez Berrizen garaile helmugaratu zen uanean.



Kirol instalazioen zozketa egingo dute hilaren 11n

Gaurtik zortzira, datorren asteko astelehenan, datorren urtean kirol instalazioak erabiltzeko zozketa egingo da Ipurua Kiroldegiko prentsa gelan. Arratsaldeko 19:00etan hasita, Unben tenisean eta foba-

llean eta Ipuruan squash-ean eta areto-foballean jarduteko tarteak zeini dagozkien erabakiko da, 19:15ean frontoia erabiltzeko orduak zehaztuko dira eta, azkenik, 20:00etan padelaren txanda helduko da.

Eibar FT-ren urteko batzarra ate joka

Abenduaren 13an egingo dute Coliseoan akziodunen ohiko batzarra. Administrazio Kontseiluak 45'3 milioi euroko aurrekontua aurkeztuko du denboraldi honetarako eta hor, zergak alde batera lagata, 15'2 milioiko superabita aurreikusten dute. Bestalde, ekainaren 30ean itxi zuten aurrekoan 12'4 milioiko emaitza positiboa izan zuten. Ekitaldian estatutuen hainbat aldaketa egiteko



asmoa dute eta, horrek batzarra luzatuko duenez, arazo gutxien sortzeko zuzendaritzak aurrez jakinaraziko die akziodunei eman beharreko urratsak. Bestalde, talde nagusiari dagokionez, atzo Ipuruan Espanyolentzako partidua jaso ondoren (ale hau inprentara bidalitakoan jokatu gabe oraindik), hurrengo zapatuan -hilaren 8an- Madrilentzako partidua jokatu beharreko neurketan. Getaferentzako partidua 13:00etan jokatu beharreko neurketan. Vigon ordezko jokalariekin partidua dotorea jokatu ondoren, eibartarrek 1-0 galdu zuten azken minutuan penaltiz jasotako golarekin; irudi polita eskaini bazuten ere, hainbat gol aukerarekin, Kopari agur esan zioten Mendilibarren mutilek. Bestalde, emakumezkoen 2. Maila Nazionalerako taldeak Athletic B-rekin galdu zuten Unben eta Vitoria filialak ere amore eman behar izan zuten etxean Burgosen aurrean. Erregional Gorengoan mailako Eibar Urkok irabazi egin zuten eta sailkapenerako 2. tokira egin du jauzia.



Saskibaloiko txikien debuta

Katu Kalek bere martxa onari eusten dio Gipuzkoako 3. Mailan eta Deban jokaturako azken jardunaldian ondo irabazi zion kostaldeko Debasket taldeari (33-51). Garaipen horrekin eibartarrek sailkapenerako gorenean jarraitzen dute, jokaturako partidua guztiak irabazita eta iaz saskibaloia batengatik lortu ez zuten igoeraren bila. Asteburu interesgarria izan zen aurrekoa, Katu Kale Txiki neska-mutileen taldeak Ligan debutatu zuelako Ipuruan giro ezin hobean jokaturako partiduan. Easo Allegierentzako taldeak ere, beste urrats bat egin dute saskibaloian.

Errugbian, bestalde, garaipen bikaina eskuratu zuten Avia Eibar Rugby Taldeak Santanderren, bertako Bathco talde indartsuari 28-43 irabazita, aurretik 28-10 galtzen jokatuta eta gero. Sailkapenerako goi aldean daude eibartarrak.


IBONE ESTETIKA

25 URTE ZUEKIN!

Romualdo Galdos, 10

Promozio bereziak

Tel. 943 20 16 01



MIKROPIGMENTAZIOA

Bekainak, ezpainak edo eyeliner: 200€



DIODO LASERRA

Bularra: 90€ Hanka osoak: 90€
Izterondoak-Besapeak: 59€

Gabonetako opari txartelak prest!

Erasmus bekarekin aitaren jaioterrira joan zen Cindy Birberg biologia karrerako azken urtea ikastera eta Suediako eskubaloiko lehen mailan jokatzeko amaitu du. Kristianstad HK taldeko hegaleko ezkerria 15 urterekin hasi zen eskubaloian jokatzeko Arrate taldean eta, Elgoibarko Sanlon zortzi urte egin ostean, bere ametsa betetzen ari da eskubaloia gehien maite duen Suediako hirian. Astebete libre izan du eta Eibarren egon da bisitan, familia eta lagunak ikusita indarrak batu eta denboraldiari berriz gogotsu ekiteko.

“Eskubaloia lagatzeko asmoa nuenean, inoiz baino indartsuago sartu zen nire bizitzan”

– **Eibarren izan zaitugu bisitan egun hauetan. Zer moduz?**

Oso ondo! Familia eta lagunak bisitatzeke aukera izan dut. Emakumezkoen Eskubaloi Mundiala jokatu da Alemanian abenduaren 1etik 17ra eta bertan Suediako ligako jokalarik askok jokatu dutenez, txapelketa gelditu egin da. Taldean astebete utzi digute libre eta Eibarrera etortzeko aprobetxatu dut. Gero, hilabete egingo dugu entrenatzen, bigarren aurre-denboraldi bat egingen, eta abenduaren 20an hasiko gara lehiaren berriz ere, maiztzerara arte. Urtean birritan etortzeko aukera izaten dut bakarrik. Astebete orain eta beste astebete udan, ezin dut gehiago.

– **Eibarren jaio zinen eta egin duzue bizitzaren zati handiena, baina zure familiaren alde bat suediarra da eta urteak daromatzaazu han. Bi etxe dituzula esan daiteke?**

Suedia ez da bizi naizen tokia, nire etxea baizik. Eibarrera joaten naizenean amaren etxean gertzen naizela diot, baina nire etxea ere bada, nola ez. Ondo moldatzen naiz Suedian, ondo integratu naiz. Erdi-suediarra iza-

nik, baliteke integrazioa errazagoa izatea. Pozik nago.

– **Kristianstaden bizi zara. Nolako hiria da?**

Ez da Eibar bezalakoa. Bizimoduaren aldetik ez dauka Eibarko poteorik eta horrelako kaleko bizitarik. Eskubaloian jokatzen nabil han eta beste pentsaera batekin bizi naiz. Bizitza lasaia daukat, urtean pare bat aldiz irteten gara juergan. Askok gustatzen zait hiria. Lasaia da, baina badu bizitasuna. Orain



CYNDI BIRBERG MURUA

(eskubaloi jokalaria):



arratsaldeko hiruretan iluntzen du eta neguan ez dago hainbeste kaleko bizitarik, baina taldeko neskekin plan asko egiten ditut. Gainera, ordu asko jardun behar dugu entrenatzen, beraz, denbora asko ere ez daukagu. Ni kirol-gunetik ehun metrotrara bizi naiz, hiriaren erdi-gunea bost minututara daukat eta toki lasaia da gauez. Toki ona da.

– **Erdi-suediarra zara, baina hango jendea nolako dela esango zenuke?**

Eskandinaviakoak hotzak direla esaten da, baina hori ez da guztiz zuzena. Euskal Herrian errazagoa da jendearekin erlazionatzea, kalean asko ibiltzen garelako. Suedian, ordea, gauez irtetzen bazara, lagun baten etxera joango zara afaldu, zerbait hartu eta denbora pasatzera. Beraz, aurrez ezagutzen duzun jendearekin batzen zara eta baliteke zailagoa izatea besteekin erlazionatzea. Bestetik, atzeritarra izanik, edozein gauza behar izanez gero, jendea oso atsegina da eta beti daude laguntzeko prest. Gainera, oso ondo egiten dute ingelesez eta hizkuntzaren aldetik ez dago arazorik.

– **Zelan erabaki zenuen Suediara joatea?**

Erasmus beka eskatu nuen eta Alemaniara joatea egokitu zitzaidan. Gero, berrantolaketa egin zuten eta Kristianstadera (Suedia) joan nintzen. Beti nahi izan dut Suediara joatea aita-rengatik, hizkuntza ezagutzen nuelako eta udan familia bisitatzera etortzen nintzelako. Stokholm zen nire lehen aukera, ez nekien Kristianstad non zegoen ere, baina Suedian zegoelako aukeratu nuen. Eskubaloia gehien bizi duen Suediako hirira iritsi nintzen kasualitatez. Gizonezkoen taldea herrialdeko onena da eta emakumezkoena bigarren mailan zegoen ni iritsi nintzenean, baina orain lehen mailako lehen postuetan gaude eta European lehiatzen.

– **Nola sartu zinen hango eskubaloian?**

Lagun batekin kafea hartzen negoen eta berak bazekien eskubaloia nire pasioa zela. Kirolgunera joango ginela esan zidan nesken entrenamendua ikustera, baina niri lotsa ematen zidan. Azkenean joan ginen, baina ordubete beranduago entrenatzen

zutela esan ziguten. Nik joateko esan nion, baina berak ezetz, itxaroteko. Bigarren entrenatzailerekin berba egin nuen eta hurrengo egunean bueltatzeko esan zidan, lagunarteko neurketa zutela eta lehen entrenatzailerak ezagutzeko. Espainian jokatzen ibili zen gaztetan azken hau eta gaztelaniaz zekien. Eurekin entrenatzeko gonbidapena luzatu zidan, baina nik ez neukan zapatarik ez ezer. Lehen egunean negarrez amaitu nuen, oso urdu-ri nengoelako eta nolabaiteko presioa sartu niolako neure buruari. Hainbat lagun joan ziren entrenamendura animatzera! Gero, dena oso ondo joan zen. Lehen urtearen amaieran fitxatu nahi nindutela esan zidaten. Lehen taldearekin entrenatu eta bigarrenarekin jokatzen nuen, baina denboraldi amaieran partidu batzuetarako igo egin ninduten. Hurrengo urtean lehen taldean hasi nintzen eta aurtengoa laugarren urtea izango da eurekin.

– Hara ikastera joan eta eskubaloiko lehen mailan jokatzen amaitu, nork esango zizun!

Izugarria izan da! Eskubaloia albo batera uzteko asmoa neukan hara joan nintzenean eta inoiz baino indar gehiagorekin sartu zen nire bizitzan. Aukera

Challenge Cup-eko final hamaseiretako itzulerako partiduko jokalaririk onenen saria jaso zuen Cyndik.



hartu eta aurrera egin nuen. Göteborgen masterra ikastea zen nire asmoa, baina eskubaloian nuen aukera ikusita, gerorako utzi nuen. Orduan, uren tratamenduaren masterra egin nuen Lunden. Animalia-ekologiaren masterra ere amaitu nuen orain dela urte eta erdi, eta Lundeko unibertsitateko biologia laborategian egon nintzen lanean. Gero, abuztutik azarora beste enpresa baten laborategian egon naiz lanean, eta Lundera bueltatu nintzen pare bat asterako horren ostean Eibarrera etorri baino lehen.

Gero Lundera bueltatzeko naiz pare bat asterako eta beste zerbait aurkitu beharko dut ondoren.

– Zaila da eskubaloia eta lana uztartzea?

Jimnasioan eta entrenatzen ordu asko sartu behar dituzunez, ez da komenigarria zortzi orduko lanordua edukitzea. Jardunaldi erdian egiten dute lan taldekide gehienek eta hori da onena. Kirol gutxi dira guztiz profesionalak, are gutxiago emakumezkoenak, baina nahi duzun horretan sakrifikatzen zara eta nik eskubaloia maite dut.

– Hemengo egoerarekin alde-ratuta, gehiago baloratzen da eskubaloia han?

Bai. Suedian foballa garrantzitsua da, baina eskubaloia ia bere mailan dago. Emakumezkoen eskubaloia ere gehiago baloratzen da eta hedabideetan hemen baino gehiago irtetzen gara. Oraindik badago aldea gizonezko eta emakumezkoen artean, baina hemen baino gutxiago. Kristianstadeko gizonzkoen taldea da Suediako talde profesional bakarra %100ean eta beste taldeetako jokalariek lana egin behar dute jokatzeaz gain, gure moduan. Gizonezko eta emakumezkoen artean ez dago hain jauzi handia, baina oraindik badago eta kexatu egiten gara. Gaur egungo gizartean zaila da, baina berdintasunaren alde borrokatu behar dugu.

– Zer moduz doa aurtengo denboraldia?

Ligako lehen itzularen erdia jokatuta 3. postuan gaude sailkapenean eta talde ona daukagula uste dut. Entrenatzaile berria sartu da, ospe handikoa. Ondo gaitza, baina horrela jarraitu behar dugu. Europan ere lehiatzen ari gara, 'Challenge Cup'-ean, eta Belgikako Femina Viseri irabazi ostean Azerbaijanoko talde baten aurka jokatuko ditugu final zortzi-renak. Belgiarren aurkako itzulerako partiduan bederatzi gol sartu nituen eta partiduko jokalaririk onena izendatu ninduten.

– Zein helburu dituzue denboraldirako?

Beti esaten dugu aurreko urtean baino hobeto ibili behar gara. Iaz final laurdenetan kanporatu gintuzten Ligan; beraz, aurreko goian amaitu nahi dugu denboraldia, final laurdenetako aurrerakoa aukeratu eta gutxienez final erdietara heltzeko. Europan, berriz, uste dut txapelketa irabazteko taldea daukagula.

– Bi urte gehiagorako kontratua daukazu Kristianstandekin. Zein asmo daukazu etorkizunera begira?

Udan berritu nuen kontratua. Normalean urte bat gehiagorako berritzen dut, baina oso gustorago, bi sinatzeko aukera eman zidaten eta momentu hau aprobetxatzen jarraitu nahi izan dut. Gero geroak.



Ezkerreko hegalean jokatzen du eskubaloilari eibartarrak.



XABIER ETXANIZ
(idazlea)

– *laz argitaratu zenuen “Waterloo-n galdutakoak” liburuaz jardungo duzue bihar. Zer kontatzen duzu bertan?*

Bakarnek, protagonistak, iktus bat izan du. Euskara irakaslea da AEKn eta iktusaren ondorioz euskara galdu du. Prozesu horretan galduta sentitzen da, ezin du bere lan-tresna erabili, eta Mikel bere bikotekidea bizitzako etapa batean ere galduta sentitzen da. Hortik dator liburuaren izenburua, galduta sentitze horretatik.

– *Bakarne euskaltegiko irakaslea da eta euskaraz bizi da, baina beti ez da horrela izan, ezta?*

Bakarne euskaldun berria da, Valentziatik etorri zen Irunera bizitzera gaztea zenean eta Irungo euskaldunen artean integratu zen. Berak orduan euskaraz bizitzea erabaki zuen, beste pertsona bat bilakatu zen. Iktusaren ondorioz euskara galtzen duenean

“Iktusaren ondorioz euskara galtzen du liburuko protagonistak”

Xabier Etzaniz Rojo (Trintxerpe, 1971) idazlea Eibarren izango da bihar, abenduak 5, Harixa Emoten irakurketa taldean, “Waterloo-n galdutakoak” (Erein) bere bigarren eleberriarekin. Ipuin lehiaketa “ia guztiak” irabazi ditu Etzanizek, eta zutabeak ere argitaratu izan ditu Berria egunkarian, Irutxuloko Hitzan eta Aizu aldizkarian. 1993az geroztik dabil irakasle AEKn.

berrir berreraiki behar du galdutako guztia Izaera ere goitik behera eraiki behar du eta hor dago drama. Lehen kapituloak gogorak direla esan didate askok, eta batzuk ezin izan dute osorik irakurri.

– *Zelan dokumentatu zara gaixotasun horren inguruan?*

Iktusaren ondorioz hizkuntza galdu zuen pertsona baten istorioa kontatu zidaten. Buruari buelta asko eman ondoren, utebetara-edo iktusa izan zuen pertsonaren kontaktua eskatu nion kontatu zidanari. Berarekin harremanetan jarri eta bere logopedaren izena ere eman zidan. Bi horiengandik jaso nuen batez ere informazioa, eta iktusa izandako beste pertsona batekin ere hitz egin nuen.

– *Bakarne AEK-ko irakaslea denez, euskaltegiko mundu hori ere azaltzen da liburuan, ezta?*

Nik 24 urte daramatzat AEK-n irakasle, eta istorioaren berri jakin nuenean pentsatu nuen horrelako zerbait niri gertatu ezkeru zer egingo nukeen. Beraz, oso erraza zen bi istorioak lotzea, lehendik eza gutzen nuena eta neska horri gertatutakoa, hain zuzen ere.

– *AEK-ko ikasleak eta irakasleak identifikatuta sentituko dira?*

Irakasleak bai, baina ikasleak ez horrenbeste. Liburuan agertzen diren ikasleak orain dela 20 urteko ikasleak dira. Izan ere, ikasle tipologia asko aldatu da ordutik hona. Nik euskara ikasi nueneko tipologia, hau da, euskaldun izan nahi duen ikaslearena, desagertzen ari da. Gaur egun beste arrazoi batzuegatik etortzen dira. Sentimendu batengatik baino, gero eta gehiago dira titulu bila etortzen direnak.

Atzo agurtu zuten Exfibar seilu-erakusketa

Aurreko domekan zabaldu zuten Exfibar XLVIII. Seilu erakusketa Portalean. Urtero Arrate Filatelia Elkartekoek antolatzen duten erakusketa aurten Eibarko Armaginen Elkarteari eskaini nahi izan diote, bere sorreraren 50. urteurrena bete dela eta. Atzo itxi zuten erakusketa A Coruña, Basauri, Bilbo, Barakaldo, Donostia, Plasencia eta Irungo bildumagileen sei luak erakutsi dituzte, baita eibartar batzuenak ere.



Maialen Belaustegi



Silbia Hernandez

Sendabelarren inguruko tailer arrakastatsua

Mentxu Amunategi bermeotarrak ...eta kitto! Euskara Elkartean aurreko astean eskainitako ikastaroan parte hartu zutenek sendabelarrei buruz gauza asko ikasi zituzten eta, gainera, gure inguruko landeree etekina nola atera ere ikusi eta probatu zuten. Eta hori gutxi balitz, urte sasoi honetan oso erabilgarria izan daitekeen katarorako jarabea egiteko errezeta eraman zuten etxera. Ikastaro biribila, beraz!



Julian Maesok lan berria aurkeztuko du Portalean

Abenduaren 15ean, 19:30ean Julian Maeso Band taldearen kontzertua hartuko du Portaleko areto nagusiak. Rock eta musika beltzeko taldeekin batera jardundako musikaria da Maeso eta, ahotsarekin ez ezik, instrumentu moeta askorekin (Hammond organoa, gitarra elektriko zein akustikoa, baxua, jazpana, Mellotron, Wurlitzer, pianoa, ukelelea, ahosoinua, melodika...) ederto moldatzen daki. Konpositore ezagunak bere hirugarren albuma, "Somewhere Somehow" izenburuko lana aurkeztuko du emanaldian. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Viviane Straub-ek erakusketa zabaldu du Kokojaten estudioan

Azaroaren 25ean zabaldu zuen "Texturas" izenburuko argazki-erakusketa Viviane Straub artistak Calbeton kaleko Kokojaten estudioan. Lanen egilea, argazkilaria ez ezik, irakaslea eta itzultzailea ere bada eta antzerkigintzan ere ibiltzen da, Narruzko Zezen taldearekin. Argazkiak abenduaren 20ra arte erakutsiko ditu eta nahi duenak astegunetan, 10:00etatik 19:00etara izango du ikusteko aukera.



Angel de la Torreren margoak Untzagako jubilatutxan ikusgai

Abenduaren 10era arte Angel de la Torreren margoak ikusgai izango dituzte Untzagako jubilatutxan. Paisaiak eta erretratuak biltzen dituen erakusketa 19:15etik 21:15era zabalduko dute astelehenetik barixakura bitartean eta zapatu, domeka eta jaiegunetan, berriz, 10:00etatik 12:00etara.

Poesia zapatua Itzamnaren eskutik

Abenduaren 16rako poesia-saioa antolatu dute Itzamna poesia-tailerrekoek. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera Nagore Gutierrez Ruizen "Corazon sin limites" liburua aurkezteko saioa izango da eta, horretarako, "Sentimientos de Cristal" elkarteko ordezkariak diren Agurtzane Estrada eta Iñaki Urdangarin Iraeta gonbidatu dituzte.

Ardo apardunen dastaketa

Ardo apardun edo espumosoak hobeto ezagutu nahi dituztenentzat saio aproposa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Illunabarrian egitasmoaren barruan. Izkeriara Ardoaren Mundua-ko Aide Jauregik munduko ardo apardun desberdinekin dastaketa-saioa eskainiko du abenduaren 12an, 19:00etan ...eta kitto!-ko bulegoetan. Izena emateko elkartea@etakitto.eus helbidera idatzi edo, bestela, 943200918 telefonora deitu.



Ion Fizen erakusketa Museoan

Abenduaren 7tik 29ra Ion Fiz diseinatzailearen lanak Eibarren ikusteko aukera izango dugu, goimailako jostintzan bere XV. urteurrena ospatzen duela eta Armagintzaren Museoan zabalduko duten erakusketari esker. Horrekin batera, ume, emakume eta gizonezkoentzako jantziak egongo dira ikusgai, "pop-up" berezi batean.



Zabor-bilketari buruzko hitzaldia

Untzagako jubilatutxan, Debarrenen Mankomunitatearekin batera, zaborrak biltzeko sistema berriari buruzko azalpenak emateko hitzaldia antolatu du biharko. Jubilatutxeko gela polibalentean izango da hitzaldia, 11:00etan hasita.



IMANOL MAGRO

Armak

Esan du alkateak, udaltzainek ez dute suzko armarik eramango. CCOO sindikatuak ere garbi utzi du Eibarko udaltzainen gehiengoak ez zuela halakorik nahi, inguruko beste hiri eta herri batzuetakoek daramatzaten arren. Gaiak, halere, eman du zeresana, agian interesatuki hauspotua. Ni armen aurkakoa naiz, zentzu guztietan, ez zaizkit gustatzen. Eibarren betidanik ikusi ditugu inguruan, eta horregatik iritzi diot euren tokia museoa dela.

Munduan barrena ibilia naiz eta ikusi ditut oso armaturiko poliziak kalean: Brasilen, AEBetan... Eta Eibarren ere bai: Guardia Zibila, Ertzaintza... Eta ez naiz seguruago sentitu, eta poliziarengana jo dudanean armek ez zuten nire arazoa konponduko. Era berean, garbi dut arma soinean eraman nahi duenak beti aurkituko duela hori justifikatuko duen mehatxu bat. Estatistikak dio gure delinkuentzia maila baxua dela, eta ez dut uste epe motzean aldatuko denik. Halere, badirudi, gaugiro borroka kopurua handitu egin dela, edo betiko kopuru bera da baina telefono mugikor eta sare sozialen bitartez oihartzun handiagoa dute. Dena den, ez dut uste armekin konpondu edo eragotzi daitezkeenik.

Ez dut zintotasun inozoan erori nahi. Mundua ez da perfektua, eta Eibar, ere ez. Udaltzainen eskaerak entzun egin behar dira, eurak baitabilta kalean egunerok. Segurtasunaren inguruko euren ezinegon, iritzi eta azalpenak oso kontuan hartu behar dira, suzko armez haratagoko konponbide mota asko daudelako. Gainera, gurean, lapurreta gehienak ez dira kalean egiten, ez dezagun ahaztu diruaren %24 ez dela deklaritzen.

Albistegien inguruko komedia eskainiko du Ados Teatrok abenduaren 14an

Ados Teatrok "Idiot txou" antzezlan eskainiko du abenduaren 14an, 20:30ean Coliseo antzokian. Garbi Losadak zuzendutako lana euskaraz taularatuko dute Josean Bengoetxea, Dorleta Urretabizkaia eta Asier Hormaza antzezleek. Gaur egungo albisteen inguruko kritika egingo dute, hori bai, umorez gainezka egiten duen gidoiari jarraituta: bi esatarik (Hormaza eta Urretabizkaia) eta teknikari batek (Bengoetxea) zuzeneko irratsaio bat egingo dute antzokitik zuzenean. Irratsaioak audientzia arazo larriak izango ditu, entzuleek apenas deitzen dute... Baina hala eta guztiz ere, gure protagonistek entretenimendurako tarte bat izatea nahiko dute, arazorik gabe, audientzia lortu eta kaleratzea saihestuko diena... Baina inortxok ere deituko ez duenez, aukera bakarra geratuko zaie: antzokiko ikusleekin hartu-eman izan eta entzule faltsuen rolak



hartuaz deiak jasotzen ari diren itxurak egitea, betetze lanetarako sikiera... Eta entzule berri baten plantak egingo dituzten bakoitzean edukiak pikutara joango zaizkie eta kaosa etorriko da. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Deporreko argazkilarien erakusketa kolektiboa


Abenduaren 8tik aurrera Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen erakusketa kolektiboa hartuko du Portaleko erakusketa aretoak. Oraingoan erakusketan parte hartzera animatu diren taldeko kideak Oskar Baglietto, Jose Luis Irigoien, Fernando Retolaza, Bakarne Elejalde, Virginia



Arakistain, Fernando Alonso, Einer Rodriguez, Fernando Solana, Pedro Arriola, J.J. Lucena, J.I. de Castro, Jose Vila, J.A. Palacios, Enrique Lorenzo, Enrique Albistegi, Jose Valderrey, J.I. Aizpurua, Federico Cuenca, Silvia Tardio, Jon Jimenez, Zigor Astigarraga eta Mikel Urionaguena dira. Eibar gai nagusi bezala hartuta, teknika eta estilo desberdinak ikusteko aukera izango da. Urtarrilaren 7ra arte egongo da martxan erakusketa, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

Jose Kareagaren lanari eskainitako erakusketa monografikoa

Abenduaren 15etik urtarrilaren 7ra arte Jose Kareaga (1930-2008) artista eta artisauari eskainitako erakusketa monografikoa ikusteko aukera izango da Portalean, 2008an hil zenetik 10 urte bete direla eta antolatuta duten erakusketan. Margolaritza eta grabatuari eskainitako bere bizitzan zehar Jose Kareagak sortutako lanak erakutsiko dituzte: kronologikoki ordenatutako olio-pinturen bilduma bat, grabatuen diseinu eta lanak, artistak erabili zituen katalogoak, prentsa dossierrak, liburuak, argazkiak eta lanerako tresnak, besteak beste.



Grabatu eta margolan askoren egilea. Felipe Loiola



**“Escamot catalá”
 ELGETAKO Espaloian**


Hirugarren urtez, Kataluniako “Escamot catalá” Euskal Herrira etorriko da eta abenduaren 7an Espaloia kafe-antzokian izango dira: dantza-tailerra, talo-jana eta dantzaldia antolatuta dute Herrixa Dantzan eta Elgetako Udalak. Egitaraua 19:00etan hasiko da, Joan Codinaren dantza-tailerrarekin; 21:00etan Eko Taloak etxekoan eskutik talo-jana egin eta dantzaldia 22:00etan hasiko da. Dantzaldirako sarrera doan izango da, baina ikastarotxoan parte hartzeko izena eman behar da herrixadantzan@gmail.com helbidera idatzita edo 675944609 telefonora deituta (10 euro, bertan ordaintzeko). Iazko saioan ehundik gora dantzazale bildu zen jai berezi honetan eta aurrean ere saio arrakastatsua izatea espero dute antolatzaileek.



**Celtas Cortos & Alboka
 Eskolako Banda
 ERMUAN**

Abenduaren 15ean, 22:15ean Celtas Cortos & Alboka Musika Eskolako Banda elkarrekin entzun eta ikusteko aukera izango da Ermua Antzokian. Ia 2 milioi disko saldu eta 2.000 kontzertu baino gehiago eman dituen Celtas Cortos taldeak ez dauka aurkezpen premiarik, baina taldeak erronka berriari helduko dio oraingoan, taula gainean Alboka Musika Eskolako bandak lagunduko dio eta. Zalantza barik, horrek Ermuko kontzertua berezia izatea eragingo du. Sarrerak 15 euro balio du.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Cesar Ruiz Claramunt. 85 urte. 2017-XI-21.
- Vicente Aristondo Agirre. 89 urte. 2017-XI-22.
- Mercedes Seara Galvan. 62 urte. 2017-XI-23.
- Jose Rodriguez Moro. 66 urte. 2017-XI-23.
- Benita Intxausti Muguruza. 101 urte. 2017-XI-24.
- Antonio Valle De Pablo. 83 urte. 2017-XI-26.
- Mari Muga Ircio. 98 urte. 2017-XI-26.
- Hipolito Etxeberria Narbaiza. 86 urte. 2017-XI-26.
- Manuel Fernandez Perez. 91 urte. 2017-XI-27.

jaiotakoak

- Emran Nasser. 2017-XI-20.
- Sofia Belen Gosden Ramos. 2017-XI-22.
- Amets Bolinaga Murcia. 2017-XI-23.
- Ander Belategi Ortega. 2017-XI-23.
- Hodaifa El Maslouhi. 2017-XI-23.
- Noha Jebari. 2017-XI-24.
- Imran Adouzi Ben Amar. 2017-XI-25.

farmaziak

- Astelehena 4
 EGUNEZ Lekuñberri (Isasi, 31)
- Martitzena 5
 EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Eguaztena 6
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguena 7
 EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Barixakua 8
 EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
- Zapatua 9
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 10
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 11
 EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Martitzena 12
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguaztena 13
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 14
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 15
 EGUNEZ Lekuñberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI - 2017AN-
 Mandiola (S. Agustin, 3)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

4	7	9	6	8	1	3	2	5
5	8	2	3	7	4	1	9	6
6	1	3	5	2	9	7	8	4
1	9	7	8	4	5	6	3	2
3	5	8	7	6	2	9	4	1
2	4	6	9	1	3	5	7	8
7	2	5	4	3	6	8	1	9
9	3	4	1	5	8	2	6	7
8	6	1	2	9	7	4	5	3

7	5				9	3	2	
	1							7
					2			
	3	7			5	8		
	9						4	
		4	1			7	3	
			2					
3							5	
	6	1	3				9	4

telefono

jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Astelehena 4**IKASTEN**

16:00. Landareen Foroa: Kardu, goroldio eta mihura. Portalean.

BIDEO-FORUMA

18:30. Emakumeen istorioak: "La Roldana: escultura pionera" hitzaldia. Portalean (ikastaro gelan).

Martitzena 5**IKASTEN**

10:00. "Zientzia eta erlijioaren arteko hurbilketa" hitzaldia, Joxe Arregi teologo eta irakaslearen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Punto-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19:00. "Waterloon galdutakoak", Xabier Etxanizen liburuari buruzko literatur tertulia. Portalean.

Eguena 7**KALEETAN KANTUZ**

17:00. Kaleetan Kantuz dantza taldearen entsegua (berriak).

18:00. Dantza taldearen entsegua (maila altuak).

19:30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Zapatua 9**DOAKO BISITA**

17:00. Armagintzaren Museoa ezagutzeko doako bisita gidatua, euskaraz (18:30ean gazteleraz). Armagintzaren Museon.

Astelehena 11**ANIZTASUNAREN ASTEA**

10:00/13:00 eta 16:00/19:00. Tailer gastronomikoak (Senegal, Nepal, Maroko). Antolatzaileak: Al Hanna, Diapo Lete, Nepal, Gazte Safa. Portalean.

ZINEA

19:00. Gipuzkoa Naturaldia: "Kantaurialdea" filmaren proiektzioa (euskaraz). Sarrera doan. Coliseoan.

Martitzena 12**GIPUZKOA ARGITU**

10:00 eta 18:30. Argindar kontsumoa ezagutzeko eta murrizteko tailerrak. Untzagako jubilatutuek.

DASTAKETA

19:00. Ardo apardunen dastaketa. ...eta kitto! Euskara Elkartean.

Erakusketak**Abenduaren 10era arte:**

– ANGEL DE LA TORREREN MARGO ERAKUSKETA. (Untzagako Jubilatutuek)

Abenduaren 7tik 29ra:

– "XV. URTEURRENA ION FIZ EIBARREN" ERAKUSKETA. (Portalean)

Abenduaren 8tik urtarrilaren 7ra:

– KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN ERAKUSKETA. (Portalean)

zineaColiseoan**(1 ARETOAN)**

3an: 17:00, 20:00
4an: 20:30

"La higuera de los bastardos"

Zuzendaria: Ana Murugarren

**(2 ARETOAN)**

2an: 17:00 (1 aretoan), **22:30** (1)
3an: 17:00, 20:00
4an: 20:30

"El autor"

Zuzendaria: Manuel M. Cuenca

**(ANTZOKIAN)**

2an: 17:00 (2), **19,45** (1), **22:30**
3an: 17:00, 20:00
4an: 20:30

"Coco"

Zuzendaria: Lee Unkrich

**Eguaztena 13****EIBARKO KANTUZALEAK**

19:00. San Andres elizako lokaletan.

ANIZTASUNAREN ASTEA

19:30. Antzerkia: "La zanja". Antolatzailea: Caminamos Para Crecer taldea. Portalean.

Eguena 14**HITZALDIA**

17:00. "Genero-indarkeriaren epailearen errealitatea" hitzaldi irekia. Portalean.

ANIZTASUNAREN ASTEA

18:00. "Explotación sexual y derecho de asilo". Antolatzailea: CEAR Euskadi. Portalean.

ODOL EMATEA

18:30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaielentzat. Anbulatorioan.

ANTZERKIA

20:30. "Idiot txou" (Ados Teatro). Sarrera 8 euro (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

(2 ARETOAN)

2an: 19:45

"Las aventuras de Alicia"

Zuzendaria: Royal Opera House



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, UNAI Zabala Uriarte, azaruaren 28xan 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARTIN, hillaren 7xan 8 urte bete bihar dozuz-eta. Musu haundi bat zure famelixaren eta, batez be, Helenaren partez.



Zorionak, AITOR, etxeko txikixak etzi 3 urtetxo beteko dozuzelako. Patxo potoluak etxekuen partez!



Zorionak, JONE, gure etxeko printzesa sorgin ederrak zapatuan 4 urte bete zittuan-eta. Patxo potolo goxo pilla famelixaren partez.



Zorionak, IRATI, hillaren 1ian 6 urte bete zenduaz-en-eta. Musu goxo eta potolua, etxekuen eta amama Olguitaren partez.




Zorionak, MADDI!, gaur 5 urte betetzen dozuz-eta. Oso ondo ospatu ingurukuekin batera. Patxo haundi bat famelixaren partez!



Zorionak, SAIOA, hillaren 8xan 12 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat laguneren partez.



Zorionak, ENEKO, hillaren 15ian 13 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat laguneren partez.




Zorionak, ANE Artetxe Barrutia, San Andres egunian urtetxua egin zenduan-eta. Maialen eta Aizearen partez.



Zorionak, AINHOA, gaur 8 urte egiten dozuz-eta! Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, KERMAN, 5 urteko mutil haundixa zara-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAIA!, hillaren 7xan 8 urte egingo dozuz-eta. Izugarri maite zaittugu. Etxekuen partez.



Zorionak, MADDI eta JARE gure printzesak, 5 urte egin dozuz-eta. Musu haundi bat zuen famelixako guztien partez.



San Andres bizperan amama LAURAK urtiak bete zittuan. Eta PAULEk abenduaren 2xan 2 urte! Zorionak, bikote!!



Zorionak, TELMO! atzo 5 urte egin zenduaz-en-eta. Ondo pasatu zenduan, ezta? Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, HAIZEA, azaruaren 28xan gure etxeko printzesak lehen urtetxua bete dau-eta. Famelixak kariño guztiarekin.



Zorionak, JANIRE Lopez Moreno, hillaren 7xan 9 urte beteko dozuz-eta. Gure neska haundixari, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LAIA (gaur, 7 urte) eta ELENE (hillaren 8xan, 6). Millesker etxeko sua piztuta eustiarren zuen alaitasunaz. Maite zaittuegu! Izeba Ane eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAIA (azaruaren 25ian) eta SHEILA (abenduaren 7xan). Aitxitxa eta amamaren partez.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai erdialdean. 99 m². 1. solairuan, kontsulta edo bulegoetarako egokia. Pegora berriztua. Merke. Tel. 656-723437.

1.2. Errentan

– Pisua alokairuan hartu nahi dut Eibarren. Tel. 632-411069.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 632-426847.
– Nire zortzi urteko umeak eta nik pisua behar dugu alokairuan Eibarren. Tel. 603-783176.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Trailerra salgai, lanarekin. Tel. 686-466966.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Lokala alokagai Birjiñape 1-ean, erosteko aukerarekin. 33 m². Guztiz konpondua. Alokatzeko: 460 euro. Saltzeko: 100.000. Tel. 688-678934.
– Garajea alokagai Asua-Errekan. Tel. 616-959625.
– 35 m²ko bulegoa alokagai. 250 eurotan, gastuak aparte (argia, ura, wifi). Ikus-tera etortzeko aukera: Ubitxa, 16-18. Tel. 943-014296.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-245326.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-788556.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 612-288257.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 622-684289.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 663-430606.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-047812.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-738823.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 633-401678.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 687-103006.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-340357.
– Emakumea eskaintzen da tabernan edo beste ezertan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 673-403149.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-891709.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-949742.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako, sukalde-lanak eta plantxan egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 661-188580.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-001083.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-805869.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 609-312279.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-902417.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-953013.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 657-831093.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 617-350350.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-201603.
– Emakume euskalduna eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Tel. 617-935160.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 631-907532.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 632-042847.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 602-064084.
– Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko, dendetako banatzaile moduan etb. Tel. 688-302653. Manuel.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 658-158036.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-700803.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Interna. Tel. 637-387401.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Interna. Tel. 686-824793.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, kamarera moduan eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-627687.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 632-411069.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-247899.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-059098.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-551711.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 667-301325.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-893569.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 662-012834.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 617-628137.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 635-944376.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 678-185304.

4.2. Langile bila

– Sukalde-laguntzailea behar dute Eibarko taberna batean. Tel. 665-308025 eta 685-286303.
– Kamarera/o behar da Portalea jatetxerako. Esperientziarekin. Tel. 943-206868.
– Kamarera/o behar da Soralezuko taberna baterako. Tel. 943-750030.
– Neska euskalduna behar da astelehentik ostegunera arratsaldean eta ostiraletan goizez. Tel. 653-701630.
– Kamareroa behar da Eibarren. Esperientziarekin barran eta jangelan. Tel. 669-713033. Bidali curriculum: jaciebelm@gmail.com
– Dendariak behar dira janari-denda batean lan egiteko. Jornada erdiz. Bidali curriculum Eibarko 16 postakutxara.
– Eibarko Laukolan SL enpresak proiektuak garatzeko programatzailea behar du. .NET eta .SQL jakitea ezinbestekoa. Bidali curriculum: lkl@laukolan.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Neska euskalduna behar da klase partikularrik emateko DBH 1. mailako ikasleari eta Batxilergo 2. mailakoari. Tel. 617-386198.

5.2. Eskaintzak

– Neska euskalduna eskaintzen da LHko edo behar bereziak dituzten umeek klase partikularrik emateko. Tel. 699-693821.
– Euskerazko klaseak ematen ditut: azterketetarako prestaketa (EGA, perfilak, ...) eta klase partikularrik. Tel. 620-608065.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Cometa Fenix 400 haizezko karabina salgai. Kutxa eta guzti. la berria. Tel. 688-803449.
– Ohe artikulatua salgai. Motorizatua, hiru mugimenduekin. Gutxi erabilia. Tel. 635-746250. Ana.
– Bi bizikleta salgai. 12-16 urte bitartekoentzat. Gutxi erabilia. 100 euro bakoitza. Tel. 650-022371. Itziar.
– Kanape tolesgarria salgai. Sompura markakoa. 0'90x1'90. Berria. Tel. 688-655758.
– 4 berogailu elektriko salgai (bi 7 elementukoak, bat 13koa eta programagarri eta bestea 4koa). Tel. 626-144098.
– Emeibaby motxila ergonomiko bi salgai. Jaiotzetik 15 kilora arte. Egoera onean. Frogatzeko aukera. Tel. 657-774565. Haizea.

6.2. Eman

– Mikro-uhina emango nuke. Egoera onean. Tel. 649-360866.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Ford autoko giltza galdu nuen. Udaltzaingoan laga edo deitu, mesedez. Tel. 631-330218.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

Logopedak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----
Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
Logopedia
AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:
- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ANTI)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

· Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Psikoterapia

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR
RPS: 32/17

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOIA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOIA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOIA

Maidar Lopez Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEIDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOIA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOIA

- Lengoia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOIA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOIA
KOLEG. ZKIA. 1947

**GIZENTASUNA
ANTSIETATEA
AUTOESTIMA
ARAZOAK**

943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO
DORREETAN

centro médico eibar

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.



Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es